

**EUSKALTZAINDIA**  
*(Euskara Batuko batzordea)*

***Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak***

**(I)**



## EUSKALTZAINBURUAREN HITZAK

Liburuxka honetan, eta honen ondoren Euskaltzaindiak argitara eman-  
go dituen gainerakoetan, Euskaltzaindiak azken aldi honetan hartu dituen  
eta hartzen ari den gomendio eta erabakiak biltzen dira. Horregatik  
darama daraman izenburua: *Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Eraba-  
kiak*. Horretaz aparte, Euskara Batuko batzordeak egindako sarrera bat  
ere badakar.

Lehenbiziko liburu honetan biltzen da *erabaki bat* letra larrien erabi-  
leraz eta Erakundeak egindako *adierazpen bat* euskal hitzei buruz. Gaine-  
rakoak gomendioak dira, eta *gomendioak* izanen dira, neurri handi batean  
bederen, hurrengo hilabeteetan Euskaltzaindiak hartuko dituenak ere.

Oro har, gomendio hauek hartzeko erabili den prozedura honako  
hau izan da: lehenik Euskara Batuko batzordeak landu ditu gaiak, hartar-  
ako, egokia ikusi duenean, nahi duen jaun-andreen laguntza eskatuz.  
Behin gaiari buruzko zirriborroa prestatu ondoren, honen kopia bat hel  
arazi zaie euskaltzain oso guztiei eta, Euskaltzainburuak hala galdeturik,  
haien iritzia emateko gogoia idatziz adierazi duten euskaltzain urgazleei  
ere. Jaun-andre hauek hogeitabat eguneko epea izan dute beren iritzia  
emateko. Ondoren, iritzia guztiak jaso ditu Euskara Batuko batzordeak eta  
material guztia mahai gainean dagoela, osoko bilkuran eztabaidatu da  
puntu bakoitza eta erabakia edo gomendioa onartu, botoen bidez. Proze-  
dura honek baten batean huts egin baldin badu ere, hauxe izanen da  
aurrerantzean segituko den bidea.

Ez da esan beharrik Euskaltzaindiak kontuan hartu dituela bere  
eztabaidan gramatika arazoak (arazoi filologikoak, historikoak, gure tradi-  
zioa, e.a.) eta arazo soziolinguistikoak ere (nola erabiltzen den gaur egun,  
non, euskalkiak, errejistro mailak, e.a.), gomendio hauek ahalik eta bata-  
sun handiena behar baitute idazleen eta irakasleen artean.

Hala ere, prozedura ez da hemen bukatzen: *gomendio* hauek *behin-behinekoak* dira. Beste hitzetan esateko: Euskaltzaindiari gomendio hauek kontuan hartzea gustatuko litzaioke, bidezkoenak ikusten dituelako. Baina puntu hauek *erabaki* bihurtuko dira (Euskaltzaindiak orain proposatzen duen bidetik nahiz egokiago gerta daitekeen beste batetik) 1994ean egingo duen *biltzar ireki* batean.

Hori dela eta, bi hilabeteko epea duzu, irakurle, liburu honetan datorrenaz zure oharrak idatziz egiteko. Horrela jasoko ditu Euskara Batuko batzordeak gai hauetan interesaturik egon litezkeen guztien iritziak.

*Jean Haritschelhar*

*(1992ko martxoaren 27a)*

## **Aurkezpena**

Euskaltzaindiak erabaki zuen, Arantzazuko biltzarra egin zenetik 1993an 25 urte beteko direla eta, batzorde berezi bat eratzea geratzen diren hilebeteotan piskanaka-piskanaka euskarak bere batasun idatzirako zehaztu behar dituen hainbat puntu jorratuz eta aztertuz joan dadin. Testugin-tzan, kazetaritzan eta irakaskuntza munduan daudenek badakite ongi aski arau orokorrak ematea ez dela aski eta duda-mudak han-hemenka sor-tzen direla ezustean.

Batzordeño honek egin behar zuen lana Euskaltzaindiaren zeregin nagusietako bat denez, hasieratik pentsatu zen egokiena litzatekeela tal-dekideak euskaltzain osoak bakarrik izatea eta, hauen artean, ekialde eta mendebaleko euskaltzainak sartzea. Hauen proposamenak denen artean eztabaidatuak izango lirateke eta, aldeko nahiz kontrako iritziak jaso ondoren, Euskaltzaindiak puntu hauei buruzko gomendioak proposatuko lituzke. Horrela eratu zen Euskara Batuko batzordea, L. Villasante duela buru eta P. Altuna, P. Xarriton eta I. Sarasola direlarik batzordekide. P. Salaburu da, berriz, idazkaria. Esku artean duzun liburuxka hau Euskal-tzaindiak eratu duen bide horretako lehen urratsa duzu.

Jakina, ohi den moduan, azkenean hartzen den erabakia ez da izaten Euskaltzaindiko lagun guztien gustukoa. Sarritan, ez eta batzorde-ñoa osatzen duten bost lagunen gustukoa ere. Honela gertatu izan da beti euskara batuaren historian, batasunak ez baititu denen nahiak behar bezala asetzen. Eta ez dugu uste asetzeko modurik ere baden, orduan ez bailitzateke seguraski ere batasunik gertatuko. Euskaldun orok ditu hiz-kuntzari buruzko iritziak, norberak uste duenez, albokoarenak baino hobeki oinarrituak, bistan dagoen bezala.

Baten batek pentsa lezake Euskaltzaindiak gomendio hauek proposa-tzen dituenean idazle bakoitzaren askatasuna kilikatzen duela, nolabait ere esateko, erakunde bat datorrela erabakiak ororen gainerik ezarri nahian

edo. Hori ez da hala, Euskaltzaindia ez baita nor indarrez eta bortzaz zuzen legokeena alboratu baztertua uzteko. Baina erakunde honek badu helburu bat, eta agindu bat ere, instituzio publikoek emana eta legeen bidez halaxe aitortua, hizkuntzari buruzko erabakiak proposatzeko eta denen aurrean agertzeko. Gero gerokoak. Horrekin bakoitzak gogokoen duena egin lezake. Orohar esan daiteke, hala ere, Euskaltzaindiaren arauak zintzoki bete dituela idazleak eta azkeneko hamarkada hauetan Arantzazun somatu ezin zitezkeen pausuak eman direla hizkuntza idatziaren batasunean. Horrek erakutsi du benetan noraino iristen den euskal idazlearen eta batasunaren alde jokatu duen jende guztiaren leialtasuna eta liberaltasuna. Liberaltasuna ez baita, ez hori, hartarako aproposa den erakundeari erabakiak har ditzan debekatzea edo espreski eskatzea erabakia honela har dezan, baizik erabaki horiek, behin eztabaida bukatu ondoren, ontzat ematea, gustokoak izan ez arren. Tamalez, batzuen kasuan bai baitirudi batasuna onargarri suertatzen dela betiere batasun arauak nork bere baitan dituenekin bat datozenean bakarrik. Eta bestela batasuna gaizki egina dagoela.

Hemengo puntuak munta txikikoak dira. Hala ere, orduak eta orduak eman behar izan ditu batzordeak eta Euskaltzaindiak, zirriborro bat bestearen ondoren prestatuz, proposamen baten alde eta kontrako arrazoiak eta argudioak mahai gainean jarritz eta halako aukerak han-hemengo hizkuntzek nola egiten dituzten zehaztuz. Oharrak ere hartu ditu batzordeak, batzuk aldekoak eta beste batzuk kontrakoak. Langaiak hainbat jenderi igortzen zaizkio, erabakia —bozketa bidez— hartu aurretik. Gehienek ez dute oharrak egiten, espreski aitortu baitute bat datozela proposamenarekin. Aurkako iritziak ageri izan dituztenen arrazoiak ere kontuan hartuak izan dira, nahiz eta kontuan hartze horrek ez duen adierazi nahi ezinbestean bat etorri behar duela batzordeak haien iritziekin. Gauza batek geratu behar du argi: proposamenak ez dira arinki hartu.

Hemengo gomendio hauek behin-behinekoak dira hala ere, eta ikusi beharko da zer nolako harrera duten ondoko hilabeteetan. Euskaltzaindiaren asmoa baita, hain zuzen ere, Arantzazuko haren 25.urteurrena behar bezala 1993an beste batzar baten bidez ospatzea eta batzar horretan puntu hauek, oraingoz gomendio, erabakitzat uztea, batzarkideek hala ikusten baldin badute.

*Euskara Batuko batzordea*

## **Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz**

Hogeita hamabi urte igaro dira Euskaltzaindiak euskal hitzei buruz lehen agiria eman zuenetik (ikus *Euskera*, 1959, 214-217 orr.). Agiri haren ondorenak guganaino heldu dira, hari eskerrak sendatu baitzen garai hartan euskarak zituen gaitzetatik bat: garbizalekeria.

Beste garaiak ziren haiek eta beste garaiak eta gaitzak dira gaurkoak, eta euskararen egungo eguneko gaitz bat askoren ustez mordoilokeria da, lehengoaren kontrakoa, bai baitirudi bazter batetik besterantz joan garela gaitz zaharra sendatu beharraren beharrez. Eta beste gauza askotan bezala hemen ere bazterrek elkar jotzen dutelako, uste dugu orduko Euskaltzaindiak gaitz haren erremedio ezarri zuen *Oinarri legeak* balio duela oraingoa ere sendatzeko. Honela zioen (grafia gaurkotuz):

*“Hiztegi sailean ez da bidezko hitz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere hitzen erabidean hizkuntzaren joerak gordeaz. Hori hiztegiari gagozkiola. Gramatikaren barrutian, ordea, ez da sekula zilegi asmatzen ibiltzea edo hizkuntza aldatu nahi izatea”.*

Zenbait idazlek, izan ere, hitz asmatuetara jotzen zuten orduan beste zenbait hitz nardatuz eta arbuiatuz, erdal usaina zeriela eta euskal hitzak ez zirelaketan; eta asmatuak gaitzesteaz gainera Euskaltzaindiak euskal hitzak zein ziren irakatsi nahi izan zuen behin betiko ondoko lerroetan, esanez: *Euskal hitzak dira euskara bizioan sustraituak daudenak.*

Bada orduan zenbait hitzen euskal nortasuna defendatu zuen bezala, egungo egunean beste zenbaiten arrotzasuna salatu nahi du Euskaltzaindiak, esanez: *Euskara bizioan sustraituak ez daudenak ez dira euskal hitzak*, sustraitzen ez diren bitartean bederen; eta orduan bezala nahi du irakatsi hitz baten sustraiei igertzeko hiru irizpide ditugula: alegia, hitzaren hedadura, hitzaren antzinasuna eta hitzaren erabilera idazle zaharretan, ezen erderatikako hitzak izan daitezke noski euskal hitzak, baina horrek ez du esan nahi erdaratikako hitz guziak euskal hitz direnik.

Hiru irizpide horiei begira, ezin uka azken urteotan euskal hitzak ez diren mordo bat entzuten dugula, telekomunikabideetan batez ere. Bada-kigu batzuk ezinbestean erabiltzen direla, ordain ezagunik ez dutelako. Beste asko ez, ordea, zabarkeriaz baizik. Ez da beharrezko lehengo agiri hartan bezala guk ere hemen zerrenda luzea eskain dezagun gure ustez euskal hitzak ez direnena. Askiko da ale batzuk ematea.

Ez dira euskal hitzak, *muntra, butxet, rehen, amotinatatu, frakaso, sorteo, arratxa* (“Errealak oso *arratxa* ona du”) *erreskatatu, entzerrona*. Ez eta ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak, non baitirudi zenbait euskal telekomunikabidetako zenbait programa aditzeko bortxatzen ditugula Iparraldeko euskaldunak lehenik gaztelera ikastera eta Hegoaldekoak frantsesa.

Euskaltzaindiak bada hitz hauek eta hauen antzekoak diren beste asko ahalik gutxiena erabil ditzaten eskatzen die euskal idazle, hizlari, irakasle eta gainerako telekomunikabideetako esatariei eta horien ordeztu dezaten betiko hitz zaharretara. Berez hitz berrien eratzea Euskaltzaindiari ez dagokion arren, Euskaltzaindia prest dago bere aldetik egiteko honetan laguntzeko.

Azkenik, orduan esana berriz errepikatuko dugu, inork gaizki adi ez dezan gure mezua: kultura eta zibilizazioko hitzak, mailegatuak izanik ere, ontzat hartzen dira, hala nola *politika, teknika, literatura, liturgia, metro, kilometro*, eta abar.

*Bilbon, 1991.eko apirilaren 26an*



## Letra larrien erabilera euskaraz

Ez da komeni beharrik gabe erabiltzea letra larriak. Hortaz, hemen aipatzen ez ditugun gainerako testuinguruetan letra xeheak erabiltzea bidezkoagoztat jotzen du Euskaltzaindiak.

Hona, bada, noiz erabiliko diren letra larriak:

1. Testu baten hasieran, puntuaren ondorenean eta bi puntuen ondorenean ere, aipamen zuzena egiten bada bakarrik, letra larriak erabili behar dira:

“Ene jaun Bertrand de Echaus...”

“Eta handik erraiten du Senekak: ‘Letra gabeko aisia, deus ez dakienaren alferkeria...’. Zeren deus ez dakiena...”

“Zenbaiten ustez, gramatika hiru zatitan banatzen da: fonologia, sintaxia eta hiztegia”

2. Izen ofizial osoetan:

2.1. Erakunde pribatu nahiz publikoen izenekin: Ikasleen Gurasoen Elkarte (baina “ikasleen gurasoen elkarteek hau eta bestea erabaki dute”), Euskal Herriko Editoreen Elkarte (baina “hemengo editoreen elkarrekin bildu zen...”), e.a.

2.2. Alderdi politiko eta sindikatuen izenekin: Eusko Alderdi Jeltzalea (baina “talde jeltzaleko diputatuak”), Euskadiko Alderdi Sozialista (baina “zinegotzi sozialistak”), e.a.

2.3. Instituzioen izenekin: Ertzaintza (baina “ertzain batek...”), Donostiako Udala (baina “Gipuzkoako udaletan...”), Eusko Jaurlaritz (baina “euskaral gobernuak”), e.a. Ararteko izena beti letra larriarekin idatziko da, pertsona bati dagokion arren, instituzioa delako (baina “Espainiako arartekoak bildu ziren atzo...”), Euskal Herriko Unibertsitatea (baina “Euskal

Herriko unibertsitateetan...”), Filsofiako Fakultatea (baina “Deustuko Unibertsitateko fakultateetan...”), Historia Saila (baina “fakultateetako sailetan”), e.a.

Hauetan, ikusten denez, izen ofizial hori pluralean ematen dugunean letra xehekin idazten da, komun bihurtu delako: “Geologia Saila” (baina “fakultate honetako sailak”). Ber gauza suertatzen da izen hori bestela ematen dugunean ere, singularrean egon arren: “sail honetan”. Azkenik, izen batzuk berez dira bereziak, pluralean badira ere: “Batzar Nagusiak”, “Langile Batzordeak”, “Langile Abertzaleen Batzordeak”, “Eusko Trenbideak”, e.a.

2.4. Lege testuetan: “1988/36 Foru-Dekretua” (baina, “dekretu bidez arautua”), “Funtzio Publikoaren Legea” (baina “Lege Biltzarrak onarturiko legeak”), e.a.

3. Izen berezietan: pertsona izenekin, ezizenak barne (“Koldo Mitxelena”, “Kirikiño”); animalien izenekin (“Pintto”, “Beltza”; bestelako izen bereziekin (“Avenida hotela”, “*Deia* egunkaria”, “Txagorritxuko ospitalea”, “Iruña kafetegia”, beti ere izena bakarrik jartzen dela letra larriarekin).

4. Erlijio jaietan: “Besta Berri”, “Eguberri”, “Aste Saindu”, e.a.

5. Estatu, herri, herrialde eta administrazio entitateekin: “Uztaritze”, “Euskal Herri” (baina “autonomia elkarte”), “Hirugarren Mundua”, “Ekialde Urruna”, e.a. Hala ere, herri hauei dagozkien herritarrak izendatzen ditugunean letra xeheak erabiliko dira: “euskaldunak”, “gasteiztarrak”, “baionesak”, “errusiarrak”, “italiarrak”, e.a.

5. Entzute handiko egunetan: “Maiatzaren Bata”, “Aberri Eguna”, “Urriko Iraultza”, e.a.

6. Mitologia jainkoen izenak: “Hermes”, “Juno”, e.a.

7. Sarietan: Nobel saria, Euskal Letren Merezimenduzko saria (“saria” hitza letra xehearekin hasten dugu), Unamuno saria, Axular saria, Urrezko Maskorra, e.a.

8. Errege eta Erreginaren izenak, bakarrik erabiltzen ditugunean: Espainiako Errege(a), Espainiako Erregina (baina “Juan Carlos errege(a)”, e.a. Arau bera ezartzen da familia osoarekin: Asturiasko Printzea (baina “Felipe printzea...”). Halaber Aita Sainduaren izenarekin ere: Aita Saindua (baina “Juan Paulo aita sainduak esan duenez...”).

9. Egoitza ofizialen izenetan: Ajuria Enea (baina “Ajuria Eneako jauregia”), Gernikako Udaletxea, e.a.

10. Astronomiaz ari garenean, planeta, izar eta konstelazioen izenekin: Lurra, Marte, Saturno, e.a.

11. Erreferentzia kardinaletan, izenak direnean: Iparra, Hegoa, e.a. Izenondo direnean, ordea, letra xeheaz (“Baionako iparraldetik”).

12. Zientzia eta ikasgaien izenetan: Filologia, Literatura, Medikuntza, Fisika, Euskal Filologia (hortaz, “Euskal Filologiako Saileko irakasle” baina “euskal filologian prestakuntza berezia du”).

13. Estatuaren botereen izenetan: Parlamentua, Senatua, Legebiltzarra, e.a. Maila guztietan gainera: Liburuaren Zuzendaritza Nagusia, Defentsako Ministerioa, Euskara Zerbitzua, e.a.

14. Erakundeetan sortzen diren batzordeen izenetan, beti ere batzorde hauek ofizialak direnean: Literatura batzordea, Gramatika batzordea, Kultura batzordea, e.a.

15. Liburuen izenburuetan hitz nagusiak beti letra larriekin jarriko dira: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak, Orotariko Euskal Hiztegia, Euskal Aditz Laguntzaile Batua*, e.a.

16. Sainduen izenetan: San Paulo, San Juan, Jondoni Paulo, Jondoni Jakue, e.a.

17. Aipatu ez ditugun gainerako testuinguruetan letra xeheak erabiltzeko dira:

17.1. Urtaro, hilabete eta asteen egunetan.

17.2. Kargu ofizial eta akademikoetan: euskaltzaina, zuzendaria, kontseilaria, ministroa, e.a.

17.3. Tituluetan: Baigorriko bizkondea.

17.4. Geografi izenetan: Bizkaiko itsasoa, Axularren plaza, e.a. Beste hizkuntzetatik mailegatzan ditugunean, ordea, ez: Buckingham Palace, Oxford Street, e.a.

*Euskaltzaindiak 1990eko urriaren 29an onartua*

***Bat eta batzuk-en deklinabidea***

*Bat* hitzak, leku-denborazko ez diren kasu-atzizkietako bat hartzen duenean, deklinabide mugagabearen arabera hartzen du. Hauek dira, beraz, formak:

*bat*  
*batek*  
*bati*  
*baten*  
*batekin*  
*batentzat*  
*batez*

Dena dela, *beste* hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean dagoenean, ez bestela, *bat*-ek deklinabide mugatuko formak, hau da:

*bata*  
*batak*  
*batari*  
*bataren*  
*batarekin*  
*batarentzat*  
*bataz*

hartzeko joera agertzen du literatur tradizioan. Testu zaharretan beti gertatzen zen hori. Gaur egun bi kasu bereizi behar dira: a) *bat* bakarrik agertzen denean, eta b) determinatzaile gisa —hots, izen baten ondoren— agertzen denean.

*Bat* bakarrik agertzen denean eta *beste* hitzaren agerraldi baten eraginpean dagoenean, gaur egun ere forma mugatuan gertatzen da, batez ere Hegoaldean, eta badirudi horrelakoak gomendatu behar direla euskara baturako:

*bata ona da baina bestea tzarra  
batak edo besteak irabazi, berdin zait  
batari nahiz besteari emateko  
batarengan eta bestearengan*

Determinatzaile gisa agertzen denean, aldiz,

*Estimaten du egun bata bercea bainoago* (Lç Rom 14, 5)

bezalako joskerak zaharkituak gertatzen direnez dagoeneko euskalki guztietan, badirudi horrelako joskerak gomendatu behar direla euskara baturako:

*saltzen duzula gauza bat bestearen lekuan  
kaie baten erdia eta bestearen beste erdia*

Leku-denborazko kasuei dagokienez, *beste*-ren agerraldi mugatu batek eragiten dien perpausetan, *batean*, *bateko*, *batera*, *batetik* erabili dira Iparraldean nahiz Hegoaldean: *etxe batean nahiz bestean* e.a. Orobat *-(e)kin*-en ondoan: *zeruko sainduekin batean* e.a.

*Beste*-ren agerraldi mugatu batek eragiten dituen perpausak alde batera utzirik, literatur tradizioa bitan banatua agertzen da testurik zaharrenetan: Iparraldean Etxeparek eta Leizarragak, *batetan*, *batetako*, *batetara*, *batetarik* formak erabiltzen dituzte beti, baina Hegoaldean, Bizkaitik Erronkarira, ez da inoiz *batean* (Bizkaieraz *baten*), *bateko*, *batera*, *batetik* (edo *baterik*) besterik ikusten. Bestalde, XVII. mendean bertan, Iparraldean *batean*-en saileko formak hasten dira agertzen: Etxeberri Ziburukoak, Argainaratsek eta Gazteluzarrek ez dute ia bestelakorik erabiltzen, eta Axularrek maiztasun berarekin erabiltzen ditu bi sailak. Hurrengo mendean areagotuz doaz *batean*-en saileko agerraldiak, eta hemeretzigarren mendean erabat nagusi agertzen dira. Zuberoako euskalkia da *batetan* saileko formei eusten dien bakarra.

Hortaz, literatur tradizioaren bilakaera hau gogoan harturik, leku-denborazko kasuei dagokienez, forma hauek gomendatzen ditu Euskaltzaindiak euskara baturako:

|               |                |
|---------------|----------------|
| <i>batean</i> | <i>batera</i>  |
| <i>bateko</i> | <i>batetik</i> |

Eguerdiaz ondoko ordua adierazteko, *ordu batean* edo *ordu batetan* erabiltzen da, euskalkien arabera. Puntu hau, orduak oro har adierazteko emango duen gomendioan erabakiko du Euskaltzaindiak..

...

*Bat* hitzak, plurala, *-zu* atzizkiaren bitartez egiten du. Dena dela, kasu-atzizkiak hartzean ez dute euskalki guztiek berdin jokatu literatur tradizioan.

Lehen arazoa NOR eta NORK kasuei dagokie. Badirudi bereizkuntza hori pluralean egiten duten euskalkietan, *batzu*-ren kasuan ere, gehien bat bederen, egiten dela. Hortaz, euskara batuak absolutu eta ergatiboaren arteko bereizte hori gorde beharko luke. Nolanahi ere, kontua da bereizkuntza hori ez dela beti era berean egin: Leizarragak *batzu/batzuk* erabiltzen zuen, Etxeberri Ziburukoak eta Axularrek *batzuk/batzuek*, eta gaur egun Iparraldean (ez haatik Zuberoan) erabiltzen dena, *batzu/batzuek*, ez zen XIX.mendearen bukaera arte finkatu. Bereizterik egiten ez duten euskalkietan, bizkaieraz *batzuk* erabili izan da bietarako, eta gipuzkeraz, *batzuek*. Zertzelada hauek guztiak kontuan izanik, badirudi Axularren eta sistema hobetsi beharko litzatekeela.

Bigarren arazoa gainerako kasuei dagokiena da. Hauetan bada euskalki guztietan *batzui*, *batzuen*, *batzuetan* saileko formak erabiltzeko joera nabarmen bat: salbuespenak gutxi dira, eta batez ere Iparraldeko autore zahar batzuegan, ez guztiengan eta ez kasu guztietan, aurkitzen dira: adibidez Leizarragak *batzuen* eta *batzuren*, biak erabiltzen ditu, bereizkuntzarik gabe agidanez, baina *batzui*, inoiz ez *batzuri*. Hortaz, badirudi formalki mugatu pluralak diren erak hobetsi behar direla euskara baturako.

Hortaz, forma hauek gomendatzen ditu Euskaltzaindiak *batzuk*-en deklinabideari dagokionez:

*batzuk*  
*batzuek*  
*batzuei*  
*batzuen* (*batzuegan*, *batzuegana*, *batzuegan(d)ik*)  
*batzuekin*  
*batzuentzat*  
*batzuetan*  
*batzuetako*  
*batzuetara*  
*batzuetatik* (-tarik)

*Batzuak* gisako erak, *bat*-en kasuan ez bezala, aski bakan eta oso idazle gutxitan agertzen dira eta beti *beste*-ren agerraldi mugatuaren eraginpean, noski. Hortaz badirudi horrelako formak baztergarritzat hartu behar direla euskara batuan.

...

Bibliografia:

- A. IRIGOYEN: "Deklinabideaz", *Euskera* XXV (1978), batez ere 752hh orr.  
 K. MITXELENA: *Orotariko Euskal Hiztegia*, **bat** eta **batzu** sarrerak.

*Euskaltzaindiak 1991ko maiatzaren 31an onartua*

## Arabera/arauera

Iparraldeko eta Nafarroako literatur tradizioetako hitz hau hainbat eratan agertu da testuetan: *araura*, *arauera*, *arauiala*, *arabera*, etab. Dena dela, XVIII.mendeaz gero erdarazko “*según / selon*”-en kide bezala *arabera* da literaturan erabili den forma ia bakarra.

Hala ere, euskara batuan, hainbat idazlek, hobe beharrez, *arauera* forma hautatu dute, *arau*-ren adlatiboa delakoan, hitzak lortua zuen idazkera-batasuna hautsiz.

Euskaltzaindiarentzat literatur tradizioa da, eta ez etimologiari buruzko usteak, hitz baten era gomendagarriena erabakitzeko erabili behar den irizpidea. Nolanahi ere *arabera*-ren kasuan, badirudi ez dagoela oinarri etimologikorik *arauera* hobesteko. Hitzaren lehen lekukotasunek, Etxepare eta Leizarragarenek, *araura* era agertzen dute. Hau azpimarragarria da, zeren Leizarragak bederen *au* diptongoa kontsonante gisa hartzen baitu, *gauean* eta erabiliz. Bestalde, K. Mitxelenaren ustez (*FHV* 119) hitzaren etimologi forma, “zalantzarik gabe” *\*arao*-ra da. Badirudi *arau* izena, lehen aldiz Leizarragagan agertzen dena, *araura*-tik erakarria dela, eta ez alderantziz, eta hortaz, aski idazle gutxik erabiltzen duten *arauera* aldaera ez dela *araura* zaharragoaren berrinterpretazio bat besterik, *arau* “asma-tu”aren argitan egiten dena. Bestalde, ezin daiteke esan *arabera*-ren delako *-b-* hori fonetikoki dialektala denik, hots, *gabean* < *gauean*-en kide denik, bigarrenagoa inoiz egiten ez duten idazleengan gertatzen baita lehenengo. Areago dirudi oraindik ezagutzen ez dugun hots-lege edo fosiltze baten ondoriozko gertakari bat, Iparraldeko idazle zaharrarengan agertzen diren *garabik*, *garabetan* (Etxeberri Ziburukoaren (*Eliz* 189 ap. *DRA*) *Iguzkiak ez du egun garabetan argitzen* adibidez) eta antzekoetan gertatzen denaren kidekoa.

Hortaz, badirudu hitzak lortua zuen batasuna hausteko arrazoirik, are etimologiaren ikuspuntutik, ez dagoela, eta beraz, euskara baturako gomendatu behar den forma *arabera* dela.

Bibliografia:

K. MITXELENA: *Orotariko Euskal Hiztegia*, **arabera** eta **arau** sarrerak.

*Euskaltzaindiak 1991ko ekainaren 28an onartua*

### ***Iritzi/eritzi***

Euskal literatur tradizioan hainbat formatan agertzen da hitz hau: *eretxi*, *eritxi*, *eritzi*, *iritxi* eta *iritzi* formetan gutxienez. Jakina denez, euskara batua eratzen hasi zenean, 1960-70 hamarraldian, *iritzi* zen, alde handiz, gehien erabiltzen zen era. Gero, euskara batuaren finkatze-prozesuan, hainbat idazle *eritzi* eraren alde makurtu zen, zaharrena eta bizkaierazko tradizioan erabilia zelakoan.

Literatur tradizioaren azterketa zehatzak gauzak ez direla horrela erakusten du. Idatziz lehen agertzen den forma, Juan de Zumarragaren gutunean (1537) jadanik, *eretxi* da, eta hori berori da bizkaierazko literatur tradizioan erabat nagusi agertzen dena. Bestalde, forma hori da etimologikoki jatorrizkotzat hartu behar den *ereitzi*-tik (ik. Mitxelena, FHV 106 orr.) gertuen dagoena. *Eritzi*, Iparraldeko eta Gipuzkoa aldeko testu zaharretan agertzen da, gehien bat *oneritzi*, *gaitzeritzi* eta antzeko elkartuetan, eta inoiz ez izen bezala. Bestalde, forma hau erabat desagertzen da Iparraldean XVII. mendean. Gipuzkoa aldean, haren ordez *iritzi* agertzen da XVIII. mendean (1713an jadanik) eta hau bakarrik erabiltzen da mende horren azkenaldeaz gero.

Azkenengo bi mendeetan, *iritzi* da, alde handiz gehien erabiltzen den forma. Bizkaieraz ere, 1800-1970 epean, oro har, *eretxi*-ren erabilera gutxituz doa eta *iritzi*-rena gehituz, eta dirudienez, 1970a inguruan *iritzi* zen bizkaierazko idazleen artean gehien erabiltzen zen forma, *eretxi*-ren (eta, noski *eritzi*-ren) gaineratik. Bestalde, azken hamarraldiotan hitza sartzen hasia da Iparraldean, *iritzi* forman hain zuzen.

Hortaz, badirudi, euskara baturako gomendatu behar den era *iritzi* dela nahiz izen, nahiz aditz bezala. Inork ez du zalantzan jartzen *e-z* hasten diren formak zaharragoak direla euskaraz, baina *ebili* eta *ekusi* zaharkituztat jotzen direnez gero, ez da arrazoirik ikusten *eritzi*-rekin beste horrenbeste ez egiteko.

#### Bibliografia:

- I. SARASOLA: "Bizkaiera eta euskara batua: *eritzi-iritzi* eta *nire-nere* literatur tradizioan". *IKER-6* L. Villasanteri Omenaldia, 451-457 orr.

*Euskaltzaindiak 1991ko ekainaren 28an onartua*



## Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri

Hizkuntzetan bi irizpide nagusiez baliatzen dira idazleak lerroz aldatzean hitza ezinbestean zatitu behar dutenean eta, hortaz, marratxoa jarri behar dutenean: marratxo hau morfemak kontuan harturik jartzen da edo marratxoa silabak bereiziz jartzen da.

Euskararen kasuan, morfemak hartuko balira kontuan, honela banatuko lirateke hitzak: *zakurr-a; due-la; dute-n; gizon-ik, maitasun-a*, e.a.

Morfemen ordeztan silabak hartzen badira, berriz, honako hau geratzen da: *za-ku-rra; du-e-la; du-ten; nik, gi-zo-nik, mai-ta-su-na*, e.a.

Ikusten den bezala, zein den aukeratzen den irizpidea, ondorioak ere aski desberdinak dira, nahiz batzuetan bat etor daitezkeen bi irizpideak: *ke-a* hitzean, esate baterako.

Morfemak hartuko balira kontuan badirudi arazo handiak sor litezkeela: itxuragabekeriak (*duzue-n; de-n-a*); morfemak non hasten diren eta non bukatzen zehaztea ez da gauza erraza (*gizon-e-k; g-en-bil-tza-n; Andonire-kin*) e.a. Gainera, bistan denez euskal idazle eta hiztunek askoz ere garbiago dutela silabaren intuizioa morfemarena baino, Euskaltzaindiak hitzak **silabaka** zatitzea gomendatzen du.

*Euskaltzaindiak 1991ko irailaren 27an onartua*

## Ordinalak

Ordinalei buruz Euskaltzaindiak 1971ko maiatzaren 28an onartutakoa honela laburbil daiteke:

- 1) Zenbakien ondoan (berdin da erromatarra nahiz arabiarra izan) puntua jarri: *X. mendea, 10. etxea, 19. mendea.*
- 2) Deklinazio kasua jarri behar denean, puntuaren ondoan atzizkia: *X.ean, 10.ean.*
- 3) Puntuaren ordez “garren” oso osorik jar daiteke “zenbakitik tarte batez aldentua”: *X garren mendea, 2 garren lasterkaria.*

Hala ere, Euskaltzaindiaren erabaki hauek ez dira beti betetzen:

- 1) Zenbait idazlek “garren” hori beti zenbakiari loturik idazteko ohitura du: *Xgarren mendea, 10garren lasterkaria.*
- 2) Batzuen ustetan, erromatar zenbakiak berez dira ordinalak eta orduan ez dute puntua jartzeko ohiturarik: *XX mendea, Federiko II, e.a.*

Punturik zalantzarik badira ere, beste hainbat kasutan koherentzia baten falta ikusten da, batez ere artikulua eta kasu marka eransteko orduan:

|                           |                                       |
|---------------------------|---------------------------------------|
| <i>Federiko II</i>        | (ezer ez)                             |
| <i>Federiko II.a</i>      | (puntua eta artikulua)                |
| <i>Federiko IIa</i>       | (artikulua bakarrik)                  |
| <i>Federiko IIa.</i>      | (artikulua eta puntua)                |
| <i>Federiko II-a</i>      | (marratxoa eta artikulua)             |
| <i>Federiko IIk</i>       | (kasu marka bakarrik)                 |
| <i>Federiko II.ak</i>     | (puntua, artikulua eta kasu marka)    |
| <i>Federiko IIak.</i>     | (artikulua, kasu marka eta puntua)    |
| <i>Federiko II-ak</i>     | (marratxoa, artikulua eta kasu marka) |
| <i>Juan Karlos I</i>      | (ezer ez)                             |
| <i>Juan Karlos I-tzat</i> | (marratxoa eta kasu marka)            |
| <i>e.a.</i>               |                                       |

Hau guztia kontuan izanik, bidezkoa dirudi proposamen zehatz bat egitea, zalantzarik gutxien sor lezakeena eta ahalik eta homogoneoa izan litekeena, euskaraz idatzi nahi duen orok berehala ulertzeko modukoa.

Hauxe da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: Ordinalak adierazteko orduan euskal literaturan eta idazleen artean erabili izan diren aukera guztien artean, Euskaltzaindiak beti puntu bat jartzea gomendatzen du. Alegia, “garren” esango litzatekeen tokian puntua jartzea sistematikoki, inolako bereizketarik egin gabe erromatar eta beste sistemetako zenbakien artean. Horrenbestez zenbakien ondoren puntua erabiliko da eta “garren” zenbakiak letraz idazten direneko bakarrik utziko da. Ordinala adierazteko marka horri artikulua eta kasu marka gaineratuko zaizkio, hala beharko balitz, edozein sintagmarekin gertatzen den bezala:

*XX. mendea*

*hogeigarren mendea*

*10. mendea*

*hamargarren mendea*

*10. lasterkaria*

*2. etxea*

*3.ak esan du*

*Hau da 4.a eta beste hori 5.a*

*XIX.mendean ez zen halako buruhausterik izan, baina XX.ean, ordea,*

*bai.*

*III. kapitulua polita da. Aldiz, IV.a ez zaio hain ongi atera.*

*XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan*

*XVII, XVIII eta XIX. mendeetan*

*Juan Karlos I.ak esan duenez*

*e.a.*

Irakurtzeko orduan “hogeigarren mendea”, “hamargarren mendea”, e.a. irakurriko dira. Azkeneko adibideak, berriz, honela: “hamazazpigarren, hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetan”, “hamazazpi, hemezortzi eta hemeretzigarren mendeetan”, “Juan Karlos lehengoak esan duenez”, e.a.

*Euskaltzaindiak 1991ko urriaren 21ean onartua*